

EUSKERAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA BILBOKO UDALETXEAN

1999ko apirila

I.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN TESTUINGURUA

I.- SARRERA

- 1.1.- Oinarri juridikoak.
- 1.2.- Udal Erabakia
- 1.3.- Plangintzaldi honetan landu beharreko alorrak.

2.- HELBURU NAGUSIAK.

- 2.1.- Euskara, zerbitzu-hizkuntza herritarrekiko harremanetan.
- 2.2.- Euskara, beste administrazio batzuekiko harremanetako hizkuntza.
- 2.3.- Euskara Udaletxe barruko lan-hizkuntza.
- 2.4.- Udaletxe honen ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea.

3.- ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.

- 3.1.- Eragin-eremua.
- 3.2.- Eragin-epea.

4.- METODOLOGIA

- 4.1.- AEBEMET metodologia.
- 4.2.- Metodologiaren ezaugarriak eta urratsak.

II.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN EDUKIA

5.- PLANAREN LEHENTASUNAK DEFINITZEA.

- 5.1.- Planaren lehentasunak.
 - 5.1.1.- Administrazio-atalen izaera eta hizkuntza-helburuak.
 - 5.1.2.- Administrazio-atal elebidunak.
 - 5.1.2.1.- Atal elebidunen definizioa, elebidun izendatzeko baldintzak eta ondorioak.
 - 5.1.2.2.- Elebidun izendatu beharreko atalen aurreikuspena. Elebidun izendatzeko prozedura.
 - 5.1.3.- Lehentasuna izan arren plangintzaldi honetan elebidun izendatu ezingo diren administrazio-atalak.
 - 5.1.4.- Bigarren plangintzaldian lehentasunik ez duten atalak.

6.- HIZKUNTZA NORMALIZAZIO NEURRIAK.

- 6.1.- Neurri orokorrak.
 - 6.1.1.- Derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak.
 - 6.1.1.1.- Derrigortasun-datak ezartzea.
 - 6.1.1.2.- Derrigortasun-datak lanpostu batzuetatik beste batzuetara aldatzea.
 - 6.1.1.3.- Lanpostuen hizkuntza-eskakizunak berrikustea.
 - 6.1.2.- Hizkuntza-prestakuntza.

- 6.1.2.1.- Lan-orduetan hizkuntza-prestakuntzarako baimenak emateko irizpideak.
- 6.1.2.2.- Aurreko irizpideen aplikazioa.
- 6.1.2.3.- Lan-orduetako hizkuntza-prestakuntza emateko kontuan izan beharreko bestelako faktoreak.
- 6.1.3.- Langileen etengabeko prestakuntza.
- 6.1.4.- Tresna edo aplikazio informatikoak.
- 6.2.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak.
 - 6.2.1.- Administrazio-atal guztietarako jarraibideak.
 - 6.2.1.1.- Zerbitzu-Hizkuntza.
 - 6.2.1.2.- Komunikazio administratiboak: administrazioen arteko harremanak eta administrazio barruko harremanak.
 - 6.2.1.3.- Lan-hizkuntza.
 - 6.2.2.- Administrazio-atal elebidunetarako jarraibide bereziak.
- 6.3.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpide osagarriak.
- 6.4.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak.
 - 6.4.1.- Droga eta KIUB
 - 6.4.1.1.- Ataleko espedienterik garrantzitsuenak eta eginkizun nagusiak aztertu eta proposamen zehatzak lantzea.
 - 6.4.1.2.- Arlokako azterketa eta proposamenak.
 - 6.4.1.3.- Banakako inkesta.
 - 6.4.1.4.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak.
 - 6.4.2.- L1 eta L2 administrazio-atalak
 - 6.4.2.1.- Arlokako azterketa eta proposamenak
 - 6.4.2.2.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak

7.- ADMINISTRAZIO HONEN EKINTZA EREMU DESBERDINETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- 7.1.- Kontratazio administratiboak
- 7.2.- Dirulaguntzak eta laguntzak
- 7.3.- Argitalpenak
- 7.4.- Administrazioaren irudia
- 7.5.- Ekitaldi publikoak
- 7.6.- Baimen edo lagapen administratiboan menpe dauden jarduerak

8.- INPLEMENTAZIOA ETA EBALUAZIOA

- 8.1.- Komunikazio-plana
- 8.2.- Inplementazioa
- 8.3.- Inplementaziorako azpiegitura eta baliabideak
 - 8.3.1.- Hizkuntza-prestakuntzarako azpiegitura
 - 8.3.2.- Hizkuntzaren Normalizaziorako Teknikariak
 - 8.3.3.- Aholkularitza eta laguntza teknikoa
 - 8.3.4.- Beste giza baliabide batzuk
- 8.4.- Ebaluazioa

9.- APIRILAREN 15EKO 86/1997 DEKRETUA

9.1.- Helburu mailakatuak eta normalizazio-ekintzak

9.2.- Sozietate Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

9.3.- Erantzuleak

1.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN TESTUINGURUA

1.- SARRERA

1.1.- Oinarri juridikoak.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta bai administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua eta berau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilerearen normalizazioari buruz onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla dira eta bai euskal herri-administrazioetako euskararen erabilerearen normalkuntza prozesuaren oinarri ere.

Lehenengo plangintzaldian (1990-1995), euskal herri-administrazioetako euskararen erabilerearen normalkuntza-prozesuaren plangintzak izan duen helburu nagusia administrazioaren giza-bitartekoak arian-arian bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitzea izan da.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen arauak (Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan **euskararen erabilera** normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak) elementu berriak erantsi dizkie lehenengo plangintzaldia araupetzen zuten arauak.

Izan ere, lehenengo plangintzaldian euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten euskal herri-administrazioetako enplegatuen kopuruan aurrera-pausu nabarmenak eman badira, orain administrazioaren baitan euskararen erabilera areagotzeko ardura eta, helburu hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira.

Horrela, 86/1997 Dekretuak **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana** onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei.

Beraz, indarrean dagoen arautegia betez, Bilboko Udalak dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana landu eta onartu behar du.

1.2.- Udal Erabakia

Bilboko Udalak 1998ko martxoaren 31ko batzarraldian Euskera Sekzioak egin eta ENBA Batzordeak (Euskararen Normalizaziorako Batzordeak) oniritzitako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren **Bideragarritasun-proposamena** onartu zuen. Bideragarritasun-proposamen hau dokumentu honi lotuko zaio eta Udaletxe honetarako

proposatzen den planaren abiapuntua eta oinarria da, bertan, besteak beste, planaren lehentasunak zehazten baitira.

1.3.- Plangintzaldi honetan landu beharreko alorrak.

Lehenengo plangintzaldian lortutako emaitzek eta azkeneko zortzi urteetan izandako esperientziak Udaletxe honetan hizkuntza-normalkuntzan aurrera egiteko eta erronka berriei zehatz eta irizpidez erantzuteko balio behar dute.

Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea euskara erabiltzeko derrigorrezko baldintza bada ere, ez da nahikoa; hizkuntza bat ezagutzetik erabiltzera ematen den jauziak lan handiagoa eskatzen du. Plan honek, beraz, hizkuntza-gaitasuna eskuratzeko ohiko neurrien ondoan beste neurri osagarri batzuk proposatu beharko ditu, erabilerarako bete beharreko baldintza guztiak eskuratzeko. Ondoren aipatzen da, beraz, Udaletxe honetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak kontuan izan beharko duena, besteak beste:

- Hizkuntza-eskakizunak ahalik eta ondoen egokitu behar dira lanpostuen zeregin nagusietara.
- Derrigortasun-data apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 20. atalak xedatutakoaren arabera beharrezkoa duten lanpostuetan ezartzea, jendearekiko hurbiltasun-maila, administrazioaren barruan duen harreman-sarea eta bere kokagunea den zerbitzu edo atalaren ezaugarriak kontuan izanik.
- Helburuekin bat datozen euskalduntze-alfabetatzerako irizpideak erabiltzea.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak finkatzea.
- Itzulpen-politika osagarria finkatzea.
- Erabilera sustatzeko eta erabileraren aldeko jarrerak eragiteko neurri osagarriak ezartzea.
- Erakundean planari lotutako hizkuntza-normalkuntzaren alorreko eginkizun zehatzak beteko dituzten giza-baliabide espezializatuak izatea.
- Helburuen betetze-mailaren jarraipen zorrotza egitea, dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatuz.

2.- HELBURU NAGUSIAK.

2.1.- Euskara, zerbitzu-hizkuntza herritarrekiko harremanetan.

Honako plan honen bidez, bitarteko egokiak ipini nahi dira administrazioaren eskura, euskara, gatzelania bezala, ahozko zein idatzizko komunikaziorako hizkuntza izan dadin Udaletxe honek herritarrekin dituen harremanetan.

Herritarrak eragindako idatzizko harremanetan, herritarrak aukeratutako hizkuntzari jarraituko zaio.

Ahozko harremani dagokienez, herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera sustatuko da administrazio honen langilegoaren aldetik.

2.2.- Euskara, beste administrazio batzuekiko harremanetako hizkuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen arteko harremanak elebitan izan behar diren arren, adostasuna tarteko bada, ez dago euskara hutsezko harremanen kontrako legezko arrazoirik. Plan honen beste helburuetako bat, beraz, Administrazio honek beste batzuekin euskarazko harremanak ahalbideratzeko adostasuna lortzea da.

2.3.- Euskara Udaletxe barruko lan-hizkuntza.

Euskara lan-hizkuntza izan dadin beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten administrazio-ataletan, berriz, jarraibideak eman eta dagozkion neurriak hartuko dira, hizkuntza-gaitasun egokia duten langileek euskaraz lan egin dezaten.

Udaletxe hau, bere zerbitzupeko langileen euskalduntzean egindako ahaleginari etekina atera beharrean dago, arian-arian euskaraz gehiago sortuko duten atal elebidunen bidez. Epe laburreko helburua ez bada ere, Udaletxe honek helburu honi eutsi beharko dio, besteak beste, ehunka langilek lortutako hizkuntza-gaitasuna gal ez dadin.

2.4. Udaletxe honen ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea.

Oraingo plangintzaldi honetara arte, herritarren hizkuntza-eskubideak berma daitezten herri-aginteez hartutako neurriak funtzio publikoaren ingurukoak izan dira gehienetan. Agiri honen sarreran adierazi bezala, herri-administrazioetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak agindu bezala, zenbait alorretan hizkuntza-irizpideak ezarri beharra dago, hizkuntza ofizialen erabileraren ikuspegitik duten garrantziagatik; horrez gain, erakundearen euskararen erabilera normalizatzeko planaren edukien artean jaso behar direla xedatzen du.

Gauzak horrela, Bilboko Udaletxearen planaren helburuen artean funtzio publikoaren alorreko neurriekin bat datorren hizkuntza-politika proposatzen da, herritar orori eragiten dioten alorretan edota Administrazioa zuzenean ordezkatuta dagoen alorretan, hots, kontratazio administratiboen alorrean, dirulaguntza eta laguntzen alorrean, argitalpenen alorrean, administrazioaren irudiaren alorrean, ekitaldi publikoen alorrean edo baimen eta lagapen administratiboen menpeko jardueren alorrean.

3.- ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.

3.1.- Eragin-eremua.

Plan honen eragin-eremuaren baitan Bilboko Udala eta bere erakunde autonomoak daude.

3.2.- Eragin-epea.

Planaren eragin-aldia 2002ko abenduaren 3in bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuaren bigarren plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

4.- METODOLOGIA

4.1. AEBEMET metodologia.

Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz Metodologia esan nahi du. AEBEMETek azken hamarkadan arlo sozioekonomikoan landutako metodologian du abiapuntua. Euskadiko maila txiki eta ertaineko herri-administrazioetako euskararen erabilera-planetarako egokitu ondoren, oraingo honetan tamaina handiagoko erakundeetara egokitu da.

4.2.- Metodologiaren ezaugarriak eta urratsak.

Metodologia honen ezaugarri nagusiak datoz ondoren:

- 1) Erakunde osoa hartzen du kontuan, egitura, funtzionamendua eta administrazio-atal desberdinen egoera.
- 2) Hasieratik helburu zehatzak, lorgarriak eta neurgarriak jartzen ditu.
- 3) Erakundearen helburu funtzionalei eta bere egoera soziolinguistikoari egokitutako lehentasunak finkatzen ditu.
- 4) Planaren proposamenean eta inplementazioan langileen partehartzea sustatzeko bideak ezartzen ditu.

Metodologia gauzatzerakoan hiru urrats bereizten dira:

- 1) Planaren bideragarritasuna eta lehentasunak finkatzea.

Euskararen erabilera-planen bideragarritasuna sailen edota erakunde autonomoen helburuen, egituraren, funtzioen eta beharren arabera baloratzen da, administrazio-atalak sailkatuz eta lehentasunak ezarriz sailka eta Udaletxe osoari begira.

- 2) Euskararen erabilera normalizatzeko proposamenak egitea eta erakundearen ekintza-eremu desberdinetako hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Bideragarritasun-txostenean ezarritako lehentasunetan oinarrituz erakunde bakoitzaren erabilera-plana lantzen da. Planak, besteak beste, honakoak jasotzen ditu: egungo hizkuntza-egoera, helburu orokorrak nahiz atal bakoitzekoak, hizkuntza-normalkuntzarako irizpideak eta neurriak, euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izateko jarraibideak, euskara sustatu eta dinamizatzeko ekinbideak, eragin-esparrua eta eragin-iraupena.

- 3) Planaren inplementazioa eta ebaluazioa burutzea.

Egitasmoak erabilera-plana ezartzeko jarduera-epeak, planaren erantzukizuna duten erakundeak, azpiegitura eta baliabideak jasotzen ditu. Era berean, planaren jarraipena eta ebaluazioa adierazleen bidezko ebaluazio-sistema etengabe eta osatuan oinarrituta egingo da, horretarako sortutako jarraipen-batzordeekin batera.

II.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN EDUKIA

5.- PLANAREN LEHENTASUNAK DEFINITZEA.

Planaren lehentasunen ezarpenari ekiteko Udaletxe honetako sail eta erakunde autonomoen egoera soziolinguistikoaren azterketa egin da, erreferentziazat administrazio-atala hartuz. Administrazio barneko atalkatzeak planaren helburuari erantzuten dio. Horrela, oso neurri eta maila desberdinetako administrazio-atalak eratu dira, zuzendaritza oso bat hartzen dutenetatik, lanpostu bakarrez osatutako ataletaraino.

Ondorioz, sail edo erakunde autonomo bakoitzaren administrazio-atalen izaera eta lehentasunen zehaztapena egin da.

Lehentasunen ezarpena erabakitzeko egin den azterketan, ondoren agertzen diren datuak hartu izan dira kontuan:

- a) Administrazio-atalen ezaugarriak.
- b) Administrazio atala osatzen duten lanpostuen ezaugarriak.
- c) Langileen ezaugarriak.

5.1.- Planaren lehentasunak.

Azterketa soziolinguistikoaren ondorioz sortutako administrazio-atalak planaren lehentasunak erabakitzeko oinarri dira. Horretarako, lehenengo, atal bakoitzaren izaera erabaki da, ondoren, izaera hori egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, indarrean dagoen plangintzaldirako lehentasuna izango duten atalak zehaztu dira.

5.1.1.- Administrazio-atalen izaera eta hizkuntza-helburuak.

Sailen egituraren azterketa eta administrazio-atalen deskribapen funtzionala oinarritzat hartuz, 86/1997 Dekretuaren 16. atalean ezarritako irizpideei jarraituz sailkatu dira sail edota erakunde autonomoetako administrazio-atal guztiak. Atalak era honetan agertzen dira:

JENDAURREKO ATALAK: Euren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen dutenak.

GIZARTE-IZAERAKO ATALAK: Herri-administrazioaren harreman-sarean kanpo-harreman oso nabarmenak dituzten atalak.

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Erregistro Orokorra.
- Etxezaintza Taldea.
- Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzua.
- Hiritarren Segurtasun Zerbitzua.

- Alkatetzako Kabinetea.
- Alkatetzako Informazio eta Harreman Publikoetako Kabinetea.
- Hirigintzan: Idazkaritza Teknikoa eta Zerbitzu Orokorrak.
- Obra eta Zerbitzuetan: Komunikazioen Taldea.
- Enplegu eta Emakume Sailatalak.
- Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Sailsa.
- Kultura eta Turismo Sailsa.
- Gizarte Ongizate Sailsa.
- Osasun eta Kontsumo Sailsa.
- Barrutietako bulegoak eta zentroak.

IZAERA OROKORREKO ATALAK: Euren zeregin nagusia, batez ere, administrazio barruko alorrean burutzen duten atalak.

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Idazkaritza Nagusia.
- Aktak.
- Lege-Aholkularitza.
- Administrazio-Artxiboa.
- Kontuhartzailletza eta Diruzaintza.
- Kontratazio-Zerbitzua.
- Giza Baliabideen Zerbitzua.
- Zirkulazio Sailatala.
- Ekonomia eta Ogasun Sailsa.
- Antolamendurako Kabinete Teknikoa.
- Kalitate eta Kopuruaren Bermerako Kabinetea.

IZAERA BEREZIKO ATALAK: Bitartekoak zein baliabideak eskaintzen dituzten atalak; gehienetan eskuz egindako lanak burutzen dituztenak (eraikuntzen mantenimendua, obrak, garbiketa eta antzekoak), edo lan teknikoak egiten dituztenak (tresneria, instalazio, laborategi eta antzekoen mantenimendua).

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Hirigintzako beste unitate guztiak.
- Obra eta Zerbitzuak (Komunikazioen taldea ezik)
- Babes Zibileko Sailatala.
- Ingurugiro Sailatala.

86/97 Dekretuak 17. atalean, herri-administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak dakartza zehaztuta, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizearen (I) bitartez. Horrela, %25etik %45era bitarteko indizea duen erakundeak (Bilboko Udaletxearen kasua, %26,04 indizea baitauka gaur egun), honako helburuak izango ditu:

- 1) Jendaurreko atal elebidunak ezartzea.
- 2) Gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa daten atal elebidunak ezartzea.
- 3) Gizarte-izaerako atal elebidunak ezartzea.

4) Izaera orokorreko administrazio-atalen artetik, mikroplana behar dutenak aukeratzea (2).

Aipatutako helburuok gutxieneakoak dira Bilboko Udaletxerako, eta erakunde honeen planak, dagozkion bitartekoak ipini beharko ditu helburu horiek lortzeko. Gizartearen beste maila batzuetan gertatzen den modura, administrazio-atal baten elebitasun-maila, bere egoera soziolinguistikoaren arabera da, besteak beste. Esandakoa kontuan izanda, plan honek lehentasunezko atalak hurrenez hurren jartzen ditu, gerora elebidun izenda daitezten. Atalaren izaeraz gain, atalaren funtzionamendu elebidunean eragina duten beste zenbait baldintza zehatz ere hartzen ditu kontuan planak.

Laburbilduz esan dezagun, 86/1997 Dekretuak Udaletxe honi ezarritako helburuak ahaztu barik lehenengo plangintzaldiaren ondorioz hizkuntza-egoera egokia daten atalak ere kontuan izango dituela planak.

5.1.2.- Administrazio-atal elebidunak.

5.1.2.1.- Atal elebidunen definizioa, elebidun izendatzeko baldintzak eta ondorioak.

Definizioa.

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira atal elebidun plan hallen ondorioetarako.

Baldintzak.

Agiri honen hasieran adierazi bezala, elebidun izendatu orduko baldintza batzuk bete beharko ditu atalak, hala nola:

1) Atalburuak eta atala osatzen daten lanpostu denek edo ia denek derrigortasun-data izatea euren lanpostuetan.

2) Atalburu den langileak eta gainontzeko langile denek edo ia denek nork bere lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. 4.HE duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak 3.HE egiaztatuta izatea.

Ondorioak.

1.- Atal elebidunetan, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza ere izango da, hau da, arian-arian agirien sorburu-hizkuntza euskara izango da, eta lehen hizkuntza, jendaurreko harremanetan eta atalaren gainontzeko zereginetan ere.

2.- Atal elebidunetan euskaratik gaztelaniarako itzulpen-beharrizanak, beste ataletan gaztelaniatik euskararako itzulpenek jasotzen duten tratamendu bera izango dute.

5.1.2.2.- Elebidun izendatu beharreko atalen aurreikuspena. Elebidun izendatzeko prozedura.

Elebidun izendatu beharreko atalen aurreikuspena.

Gaur egun elebidun izendatzeko beharrezko baldintzak betetzen dituen administrazio-atal bakarra Euskera Sekzioa da. Hala ere, badago hemendik plangintzaldi amaitu arte (2002. urtea) izenda daitezkeen administrazio-atalen aurreikuspena egiterik. Horretarako, elebitasun-datak jarriko zaizkie plangintzaldi barruan baldintza horiek eskura ditzaketen atalei.

Elebitasun-data, beraz, atal batek arestian aipatu diren baldintzak bete, eta, ondorioz, elebidun izendatzeko duen data da. Urtea zehaztuko da data ezartzerakoan.

Aurreikusitako elebitasun-datak honako hauek ditugu:

1) 1999ko elebitasun-data duten atalak.

Baldintza nagusiak bete eta dagoeneko euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiten duten atalei ezarriko zaie 1999ko elebitasun-data. Sailen organigrametan atal hauek E (elebidun) letraz ezagutaraziko dira.

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Euskera Sekzioa.

2) 2002ko elebitasun-data duten atalak.

Elebidun izendatzeko baldintza nagusiak betetzear dauden atalei ezarri zaie 2002ko elebitasun-data. Atalaren organigraman L1 letraz ezagutaraziko dira. 1. mailako lehen tasuna izango du atalak, beharrezkoak dituen bitartekoak esleitzerakoan (derrigortasun-data, hizkuntza-prestakuntza, e.a.), data horretarako elebidun izan dadin.

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Erregistro Orokorra.

- Etkezaintza

- Hiritarrekiko Harremanak

- Hirigintza Saileko Idazkaritza Orokorra eta Ardura Orokorrak.

- Obra eta Zerbitzuetako Komunikazioen taldea

- Enplegu, Emakume eta Ingurugiro Saila.

- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saila.

- Kultura eta Turismo Saila.
- Osasun eta Kontsumo Sailean:
 - Eskola-Osasuna.
 - Drogomenpetasunak.
 - KIUB
- Barrutietako bulegoak eta zentroak.

Sailkapen honen barruan lehentasunezkoztat jo dira Droga eta Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB), hau da, azterketa sakonagoa egingo da bertan arrazoi hauek kontuan hartuta:

- Saileko zuzendaria euskalduna da.
- Bi unitateetako langile gehienak (denak ez esatearren) euskaldunak dira eta euskeraz lan egiten hasi nahi dutela jakinarazi digute.
- Unitate hauek hiritarrekin duten harremana zuzena eta ohikoa da eta Droga unitatekoek eskolekin eta gazteriarekin harreman handia dute.
- Bi unitate hauek lantoki berean daude.

Prozedura.

- a) 1999ko elebitasun-data duten atalen kasuan, Bilboko Udaletxean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzearekin batera izendatuko dira elebidun.
- b) 2002 elebitasun-data duten atalen kasuan, Euskera Sekzioak proposatuta eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak aldeko txostena eman ondoren, plana berrikusiko den urte bakoitzean.

5.1.3.- Lehentasuna izan arren plangintzaldi honetan elebidun izendatu ezingo diren administrazio-atalak.

Izaeraren arabera elebidun izendatu beharreko atal batzuk daude, baldintzak ez betetzeagatik izendatu ezin direnak, lanpostu gehienak derrigortasun-data gabekoak direlako edota langileen hizkuntza-gaitasuna lanpostuak eskatzen duenarekin bat ez datorrelako.

Erabilerarako aukeratu ez arren lehentasuna dute dagozkien lanpostuetan derrigortasun-datak ezartzeko eta atal honetako langileen hizkuntza-prestakuntza bideratzeko.

Sailtako Organigrametan L2 letraz ezagutaraziko dira. Atal horiek 2. mailako lehentasuna baitute dagozkion bitartekoak esleitzerakoan (derrigortasun-data dela, hizkuntza-prestakuntza dela,...), datorren plangintzaldirako elebidun deklaratuak izan daitezzen.

Bilboko Udaletxean honakoak dira:

- Hiritarren Segurtasun Zerbitzua
- Alkatetzarako Kabinetea.
- AIHPK
- Gizarte Ongizate Saila.

5.1.4. Bigarren plangintzaldian lehentasunik ez duten atalak.

Izaeragatik (atal orokorrak edo bereziak direlako) eta baldintza egokirik ez izateagatik, plangintzaldi honetan, ondorio guztietarako lehentasunik gabeko jotzen diren atalak dira.

LG bezala ezagutarazten dira atal hauek (Lehentasun Gabeak). Hala ere sailen organigrametan ez dira LG hizkiez markatzen, marka eta seinale gehiegi egon ez dadin.

6.- HIZKUNTZA NORMALIZAZIO NEURRIAK.

Planaren lehentasunak ezartzeko erabilitako irizpideak azaldu ondoren, eta irizpideok sailen administrazio-atal desberdinetan zehaztutakoan, hizkuntza-normalkuntza neurriak ematea dagokigu orain. Lau eratako neurriak dira landu beharrekoak:

- 1) Neurri orokorrak.
 - Derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak.
 - Hizkuntza-prestakuntza.
 - Langileen etengabeko prestakuntza.
 - Aplikazio eta tresna informatikoak.
- 2) Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak.
 - Administrazio-atal guztietarako jarraibideak.
 - Atal elebidunetarako jarraibide bereziak.
- 3) Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpide osagarriak.
- 4) Hizkuntza-dinamizazio ekintzak.
 - Droga eta KIUBen.
 - L1 eta L2 ataletan.

6.1.- Neurri orokorrak.

6.1.1. Derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak.

6.1.1.1.- Derrigortasun-datak ezartzea.

Bigarren plangintzaldian Bilboko Udalarari dagokion derrigortasun-indizea %24,06koa da.

Derrigortasunak ezartzeko irizpideen artean, lanpostuak jendearekin duen harreman-mailaz eta administrazio barruan duen harreman-sareaz gain, lanpostua kokatuta dagoen zerbitzu edo atalaren tipologia ere badago eta hori ere kontutan hartuko da.

6.1.1.2.- Derrigortasun-datak lanpostu batzuetatik beste batzuetara aldatzea.

Lanpostuari derrigortasuna ezartzerakoan, plangintzaldi honetan lehentasun gabeko atal batean kokatutako lanpostua balitz, derrigortasun-data ken daiteke, ondoren beste lanpostu bati ezartzeko, beti ere lanpostuak jendearekin duen harreman-maila, administrazio barruan duen harreman-sarea eta lanpostua kokatuta dagoen zerbitzu edo atalaren tipologia kontutan izanda.

6.1.1.3.- Lanpostuen hizkuntza-eskakizunak berrikustea.

Lanpostuei ezarritako hizkuntza-eskakizuna lanpostuaren berezko funtzioak betetzeko beharrezkoa den hizkuntza-gaitasunari ahalik eta ondoen egokitzeko, beharrezkoak diren aldaketak egin daitezke, desegokitzapenik izanez gero.

Bestalde, antzeko ezaugarrietako lanpostuen hizkuntza-eskakizunen artean dauden aldeak murriztea ere komeni da.

Nahiz eta hizkuntza-eskakizuna lanpostua betetzeko behar den euskarazko hizkuntza-gaitasunaren arabera ezarri behar den eta horretarako lanpostu bakoitzaren berezitasunak kontuan izan behar diren, zenbait kasutan ez da erraza hizkuntza-eskakizunen arteko desberdintasunen justifikazioa ikustea.

Funtzionarioak, kidegoka antolatuta daude, sarbidean eskatutako titulazio-mailaren eta bete beharreko eginkizunen arteko antzekotasunaren arabera. Hori dela eta, kidego eta hizkuntza-eskakizunen arteko loturak emango dira ondoren, irizpide osagarri gisa:

A kidegoa: 3HE/4HE

B kidegoa: 3HE/4HE

C kidegoa: 2HE/3HE

D kidegoa: 2HE

E kidegoa: 1HE/2HE

6.1.2.- Hizkuntza-prestakuntza.

Derrigorrezko indizea, indarrean dagoen plangintzaldian administrazioak hizkuntza-gaitasunari dagokionez bete behar duen gutxieneko helburuaren adierazle da, derrigortasun-data ezarri behar zaien lanpostuen ehunekoa alegia. Banako hizkuntza-gaitasun helburuak adierazten ditu derrigortasun-datak, beraz.

Plan honetan, hizkuntza eskakizunak derrigortasun-data izatea oinarrizkoa izan da plangintzaldiko erabilerarako lehentasunak finkatzeko eta elebidun deklaratzeko, atal

elebidunen aurreikuspena egiteko alegia.

Hizkuntza-prestakuntzaren inguruan Administrazio honek jarraitu beharreko politikak bere lanpostu-zerrendako hizkuntza-helburu zehatzak izan beharko ditu kontuan, eta bai plan honek sailetako atal desberdinetarako jarritako helburuak ere. Irizpide argiak eta bateratsuak beharko dira, beraz, lan-orduetan euskarazko eskoletarako baimenak ematerakoan.

6.1.2.1.- Lan-orduetan hizkuntza-prestakuntzarako baimenak emateko irizpideak.

1) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasuna.

Derrigorrez bete beharreko hizkuntza-eskakizunek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egin beharko zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuan derrigortasun-data duten langileen eskariak jarriko dira lehenengo.

2) Langilea eta Administrazioa lotzen dituen harreman-mota.

Karrerako funtzionarioak behin-behineko funtzionarioen aurretik izango dira lehentasunetan.

3) Administrazio-atalaren tipologia.

Langilea kokatuta dagoen atalaren izaera kontuan hartu beharko da:

-L1 ataletakoak

-L2 ataletakoak

-LG ataletakoak azkenez.

4) Lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu barik daukaten langileek, egiaztatuta izan eta lanpostuarena baino goragoko hizkuntza-eskakizunen baterako baimena eskatzen duten langileek baino lehentasun handiagoa izango dute.

6.1.2.2.- Aurreko irizpideen aplikazioa.

Edozein kasutan, langile guztiak izango dira kontuan hizkuntza-prestakuntza ematerakoan, karrerako funtzionarioak izan, nahiz behin-behineko funtzionarioak izan. Guztia Giza Baliabideen Zerbitzuko zinegotzi ordezkariaren 1998ko martxoaren 2ko dekretuan eta ondorengoetan (1998ko martxoaren 27koan eta urriaren 1ekoan) erabakitakoaren arabera. Agiri horiek proposamen honi lotuko zaizkio 2. eranskinean.

6.1.2.3.- Lan-orduetako hizkuntza-prestakuntza emateko kontuan izan beharreko bestelako faktoreak.

Lan-orduetan eskolaratu beharreko langile guztiek nork bere prestakuntza-plana beharko dute izan, bakoitzaren prestakuntza-beharrizanei ondoen datozkien moduluak aukeratzeko eta, ahal den neurrian behintzat, etenik gabeko prestakuntza izan dezaten.

Baimena ematerakoan, bestalde, eskatzaileak baimena eskatu aurretik egindako ikastaroei ateratako etekina ere izan beharko da kontuan bala dagokionean.

6.1.3.- Langileen etengabeko prestakuntza.

1.- Arian-arian ikastaroak euskeraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntza-gaitasun nahikoa duten langileentzat.

2.- Prestakuntza-ekintzen eskaintzen artetik, izaera orokorra dutenek izango dute lehentasuna.

3.- Prestakuntza-eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.

4.- Euskarazko eskaintzaren ezaugarriak gaztelaniazkoarenak bezain erakargarriak izan beharko dira.

6.1.4.- Tresna edo aplikazio informatikoak.

1.- Lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, euskarazko bertsiorik egonez gero, euskarazkoa jarriko zaie derrigortasun-data duten lanpostuei.

2.- Informatikako materiala eskatzeko orrietan euskarazko bertsioak eskatzeko aukera emango da, hizkuntza-gaitasun nahikorik duten langileek halaxe adieraz dezaten.

6.2.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak, 5., 6., 7. 8. eta 13. ataletan, eta, era mugatuago batean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak 97.1. atalean, hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak ematen badituzte ere, komenigarri jo da aipaturiko legeetan jasotako xedapen batzuk garatzea, batetik, eta orain arte jaso gabeko beste batzuk jasotzea, bestetik, Administrazio honetako jarduketan erantzule direnek hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak izan ditzaten.

6.2.1.- Administrazio-atal guztietarako jarraibideak.

6.2.1.1.- Zerbitzu-Hizkuntza.

Euskarak, gaztelaniak bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, atal mota guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman-mota guztietan bermatu beharko da euskararen erabilera, ahoz eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektroniko, informatiko zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet , fax, posta elektroniko eta abarretan).

a) Ahozko harremanetan.

1.- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz eta, emandakoak), euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, esandako orden berean.

2.- Euskara dakien langilea euskeraz zuzenduko zaio herritarrari, eta gero

administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

Langileak euskaraz jakin ez, eta herritarra euskaraz zuzentzen bazaio, edo euskaraz atenditua izatea eskatzen badio, langile elebidun bati eskatuko dio laguntza.

b) Idatzizko harremanetan.

1.- Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrak espreski euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu.

2.- Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duenean eta espediente edo prozeduraren hizkuntzaren gainean adostasunik ez dagoenean, espediente edo prozeduran berau bultzatu duen pertsonak hautatutako hizkuntza erabiliko da, beti ere, beste parteei prozeduraren jarduketean itzulpena emango zaiela bermatuz.

6.2.1.2.- Komunikazio administratiboak: administrazioen arteko harremanak eta administrazio barruko harremanak.

1.- Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.2 atalean xedatutakoari jarraituz, elebietan egon behar dira Bilboko Udalak beste edozein administrazioetara bidalitako komunikazio administratiboak.

2.- Komunikazio administratiboak euskaraz idatzi eta bidaliko dira hala eskatzen duten herri-administrazioetara, eta bai euskara hutsa erabiltzen dutela ezaguna den guztietara ere.

3.- Bilboko Udaleko edozein ataletatik bertako atal elebidun batera doazen komunikazio administratiboak euskaraz idatzita bidaliko dira apurka-apurka, lanpostuan derrigortasun-data duten langileek hizkuntza-gaitasuna eskuratu ahala komunikazio administratiboa igortzen duen atalean.

6.2.1.3.- Lan-hizkuntza.

Lan-hizkuntzaren inguruko jarraibide hauek, batez ere, memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuei buruzkoak dira, eta, erabili beharreko hizkuntza ofiziala dela eta, legezko xedapenek ukitzen ez duten bestelako idatzizko jarduketari buruzkoak ere.

Jarraibideak, berriz, honako hauek dira:

1.- Plan honetan komunikazio administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin barik, administrazio-ataleko dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz edo gaztelaniaz.

2.- Herritarrek parte hartzen duten espediente edo prozedura administratiboetarako legezko xedapenetan eta Plan honetan emandako jarraibideari kalterik eragin barik, prozeduran zehar sortutako dokumentazioa, Bilboko Udaleko edozein ataletatik bertako atal elebidun batera bidaltzekoa bada, euskaraz sortu beharko da apurka-apurka, derrigortasun-data duten lanpostuetako langileek hizkuntza-gaitasuna eskuratu ahala dokumentazioa sortzen den atalean.

6.2.2.- Administrazio-atal elebidunetarako jarraibide bereziak.

Zerbitzu-hizkuntza gisako jarduketetarako eta administrazio barruko zein administrazioen arteko komunikazio administratiboetarako, 6.2.1. puntuko izaera orokorreko jarraibide berberak ematen dira.

Lan-hizkuntza gisa, berriz, honako jarraibide hauek izan beharko dira kontuan:

1.- Plan honetan komunikazio-administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin barik, administrazio-atal elebidunetako dokumentazioa euskaraz sortuko da. L1 eta L2 ataletan apurka-apurka beteko da jarraibide hau.

2.- Herritarrek parte hartzen duten espediente edo prozedura administratiboetarako legezko xedapenei edo Plan honetan emandako jarraibideari kalterik eragin barik, prozeduran zehar sortutako dokumentazioa, Bilboko Udaleko atal elebidun batetik bertako edo beste administrazio bateko administrazio-atal batera bidaltzekoa bada, sortu den hizkuntzan bidaliko da. Hartzaile den herri-administrazioaren egoera soziolinguistikoa kontuan izanda, edota administrazioak gaztelaniazkoa bidaltzeko eskaria egina duen ala ez, atal elebiduna atxikita dagoen organoaren titularraren esku egongo da administrazio horretara bidali beharrekoa gaztelaniaz sortu ala ez erabakitzea.

6.3.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpide osagarriak.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako aurreko puntuan emandako jarraibideek itzulpen beharrianak dakartzate, plan honetan aurreikusi beharko direnak. Izan ere, hizkuntza ofizial bietan lan egiteko kapaz diren funtzionarioek planean emandako jarraibideen arabera jokatu beharko dute, atal bakoitzeko betetze-erritmoetara egokiturik. Arintasun eta eraginkortasun administratiboaren printzipioak bete daitezten, itzulpenak eginkizun osagarri izan behar du, hizkuntzen erabilerarako jarraibideak betetzen lagunduz.

Hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusitako itzulpen-beharrizanak honako hauek dira:

a) Herritarrei nahiz beste administrazio batzuetara elebietan bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea.

b) Herritarrari euskara hutsean edo gaztelania hutsean (berak halaxe aukeratu duelako) bidali beharreko dokumentazioa itzultzea.

c) Atal elebidun batetik euskaraz sortu eta bidalitako dokumentazioa administrazio-atal hartzailean itzultzea.

Aipaturiko itzulpen-beharrizanoi nola erantzungo zaie zehazteko, dagozkion neurriak emango dira, antolakuntza eta langileen alorrekoak nahiz ekonomikoak.

6.4.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak.

Agiri honetan jasotako neurriak antolatzerakoan, zentzuzko ordena erabili da, hau da, derrigortasun-datak ezartzeko irizpideak eman dira lehenengo, hizkuntza-

prestakuntzari buruzkoa jaso da ondoren, eta hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak eta itzulpen-irizpide osagarriak azkenez. Ezin dugu ahaztu, berriz, hizkuntza gutxituaren erabilerak bestelako laguntzak ere behar dituela Administrazio honetan, besteak beste, segurtasun-falta gainditzeko, hizkuntza-ohituretan eragiteko, eta abar. Horrelako eta bestelako zailtasunak, gainditzen lagunduko duten dinamizazio-ekintzak aurreikusi dira ondoren, hortaz.

Hizkuntza-dinamizazio ekintzak planaren lehenetsunekin bat antolatu beharko dira, Droga eta KIUB ataletan landu beharrekoak lehenengo eta L1 eta L2 ataletakoak ondoren.

6.4.1.- Droga eta KIUB

Erabilerarako erabateko lehenetsuna duten atalak izanda, azterketa sakonagoa egin da eta ekintza gehiago eratu dira bertan. Ondoren azalduko da egin da:

6.4.1.1.- Ataleko espedienterik garrantzitsuenak eta eginkizun nagusiak aztertu eta proposamen zehatzak lantzea.

Espediente nagusiak, eragindako funtzionarioak, harremanetarako agiriak eta egoera soziolinguistikoa aztertuko dira. Agiriak desberdindu egingo dira, zerbitzu-hizkuntza gisakoak, administrazioekiko harremanetakoak ala lan-hizkuntza gisakoak diren. Bideragarrienak diren espedienteak eta eginkizunak hartuko dira lehenengo.

6.4.1.2.- Arlokako azterketa eta proposamenak.

Hizkuntza plangintzaren ikuspegitik alorrik estrategikoenak aztertuko dira, hau da, hizkuntza-prestakuntza orokorra eta espezifikoa; kanpoko eta barruko harremanak; irudia eta hizkuntza-paisaia; hizkuntza-irizpideak; etengabeko prestakuntza; tresna eta aplikazio informatikoak; komunikazio-zirkuluak (3) eta planaren hizkuntza-azpiegitura.

Aurretik eginiko azterketaren osagarri da hau, eta lehenetsunezko alorren diagnostikoa eta hartu beharreko neurriak ematen dizkigu.

6.4.1.3.- Banakako inkesta.

Planari buruz langileek duten jarrera ezagutzeaz gain, hasieratik parte hartzeko aukera ematen die.

6.4.1.4.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak.

Hizkuntza-dinamizazio lanak eta prestakuntza osagarria sakonagoa eta ugariagoa izango dira atal hauetan: hizkuntza-prestakuntza orokorra, helburu berezietarako hizkuntza-prestakuntza, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa bideragarriak diren espedienteetan eragitea; hizkuntza-paisaiari eragitea; hizkuntza-irizpideak aplikatzea; komunikazio-planak martxan jartzea, hizkuntza-gaietarako aholkularitza zerbitzua ematea eta komunikazio-zirkuluak martxan jartzea.

6.4.2.- L1 eta L2 administrazio-atalak

Atal hauek apurka-apurka landuko dira, elebidun izendatzeko baldintzak eskuratzuz doazen heinean. Hala ere, garrantzizko atalak direnez, 1998an zehar dituzten lehenetasunak aztertu dira, zerbitzu-hizkuntza beharrianak ezagutzeko batez ere, egon daitekeen hizkuntza-gaitasunari etekina ateratzeko. Atal hauetan azterketa ez da Droga eta KIUB ataletakoak bezain sakona izan; arlokakoa izan da gehienbat, eta hizkuntza-gaitasuna lortze aldera jo du.

6.4.2.1.- Arlokako azterketa eta proposamenak

Hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik alorrik estrategikoenak aztertuko dira, hau da, hizkuntza-prestakuntza orokorra eta espezifikoa; kanpoko eta barruko harremanak; irudia eta hizkuntza-paisaia; hizkuntza-irizpideak; etengabeko prestakuntza; tresna eta aplikazio informatikoak; eta planaren hizkuntza-azpiegitura.

6.4.2.2.- Hizkuntza-dinamizazio ekintzak

Hizkuntza-dinamizazio lanak eta prestakuntza osagarria azalekoagoak izango dira atal hauetan: hizkuntza-prestakuntza orokorra, helburu berezitarako hizkuntza-prestakuntza, zerbitzu-hizkuntza gisa bideragarriak diren espedienteetan eragitea; hizkuntza-paisaiari eragitean hizkuntza-irizpideak aplikatzea; komunikazio-planak martxan jartzea, hizkuntza-gaietarako aholkularitza-zerbitzua ematea eta komunikazio-zirkuluak abiaraztea.

7.- ADMINISTRAZIO HONEN EKINTZA EREMU DESBERDINETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Ondoren Bilboko Udalaren jarduera-esparru desberdinetan erabili beharreko hizkuntza-irizpideak emango dira.

7.1.- Kontratazio administratiboak

1.- Udaltzak hizkuntzari buruzko klausula orokor eta espezifikoak onartuko ditu Bilboko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen kontratazioetarako beharrezkoak diren pleguetan txertatzeko.

2. - Pleguetan puntu berezi bat jasoko da, eskuarteko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez adieraziko duena.

3.- Eman beharreko prestazioak zerbitzu publikoaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Erabiltzaileek eta, oro bar, herritarrek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.

b) Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz zein gazteleraz, bietan, eman beharko ditu kontratistak.

c) Baldintza hauek ez badira betetzen edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko hizkuntza-gaitasuna duten nahiko langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda bete ez den baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

d) Erabiltzaileekiko harremana dakarren prestazioa eskainiko duen lan-taldean euskarazko hizkuntza-gaitasun egokia duen langileen gutxieneko kopuru bat egongo da. Gutxieneko kopuru hori zehazteko, zerbitzua emango den esparruan administrazioari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. Atalean xedatutakoaren arabera derrigorrez betetzea dagokion indizea izango da kontuan.

4) Kontratazio Mahai bakoitzak 7.1.3. idatz-zatian begietsitako neurriak ezartzeko modua zehazteko jarraitu beharreko irizpideak finkatuko ditu, bereziki, kasu bakoitzean prestazioa emateko langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna ezinbesteko beharkizun edo esleitzeko irizpide gisa noiz hartu erabakitzeke balioko dutenak.

7.2.- Dirulaguntzak eta laguntzak

Dirulaguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, haien esleitzeko eta, hala badagokie, haien zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean hizkuntzaren erabilera kontuan izan behar da laguntza edo dirulaguntzaren objektuan hizkuntzaren erabilerak eraginik duenean edo Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 25, 26 eta 27. ataletan aipatzen diren jarduera eremuetan (4).

Dirulaguntzen eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, dirulaguntzaren onuradunen obligazioen artean jasoko da diruz lagundutako programa edo jardueraren promoziorako sortutako kartel, testu eta agiritan euskera edo euskera eta gaztelania erabiltzekoa. Laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte sailaren edo erakunde autonomoaren babesletzaren aipamena jasoko duten elementuetako testuen hizkuntzaren zuzentasuna zaintzeko.

7.3.- Argitalpenak

Bilboko Udalaren argitalpenetan euskarak izan behar duen presentziari dagokionez, honakoa izango da kontuan:

a) Euskararen erabileraren normalizazioa: argitalpenak sustatzen dituzten organoek euskararen agerpena bultzatuko dute argitalpen horietan, euskararen erabilera orokorra izan dadin ahaleginduko dira, eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa, betetzen dela ziurtatuko dute. Argitalpenek, oro har, euskarazko gutxieneko testu-zatia izan beharko dute, ahal bada jatorrizkoa euskaraz eta ez erderazko testuaren itzulpena; testu-zati hau plangintzaldi bakoitzari dagokion derrigortasun-indizearena izango da gutxienez. Gaur egun %26koa da.

b) Argitalpenaren edukia, eragilea eta hartzailea kontuan izanda, euskara hutsezko argitalpenak sustatuko dira.

7.4.- Administrazioaren irudia

Ezein euskarritan (inprimaki, foileto, kartel, errotulu, e.a) dauden Bilboko Udalaren testu eta nortasun korporatiboaren adierazle diren elementu grafikoak Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin eta Erakunde-Nortasunari buruz indarrean dauden arauekin bat etorriko dira.

Halaber, arreta berezia ipiniko da euskarazko testuen kalitatean, euskarak, hizkuntza ofizial eta Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza gisa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak merezi duten duintasunarekin bat etor dadin.

Akats eta gabeziak dituzten testuak saihesteko ahalegina egingo da eta euskarri iraunkorretan dauden testu akasduak zuzentzeari ekingo zaio.

7.5.- Ekitaldi publikoak

Bilboko Udalaren eta bere erakunde autonomoetako kargu eta enplegatu elebidunek euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldia Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herria bada eta erakundean duten kargu edo lanpostuagatik badihardute.

Era berean, Administrazioak ahal den guztietan halako ekitaldirako izendatuko dituen pertsonak euskarazko hizkuntza-gaitasun egokidunak izan daitezen zainduko du.

7.6.- Baimen edo lagapen administratiboaren menpe dauden jarduerak

Bilboko Udalaren lagapen edo baimen administratiboaren menpe dauden jardueratan euskararen erabilera bultzatu behar da herritarrek eurek hautatutako hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukerari eragiten badiote.

8.- INPLEMENTAZIOA ETA EBALUAZIOA

8.1.- Komunikazio-plana

Komunikazio-planaren helburua, eragile desberdinei planaren bidez lortu nahi dena ezagutaraztea da, nori bere eginkizuna azalduz. Besteak beste, hizkuntza ofizialen erabilera-jarraibideak, plana abian jartzeko prozedura, inplementatzeko bideak eta lortutako emaitzei buruzko azalpenak emango ditu.

Komunikazio-planaren hartzaileen artean, Administrazio honetako arduradun tekniko eta politikoak, langileak, euskal herri-administrazioak eta herritarrak ditugu.

8.2.- Inplementazioa

Aipatuenez, hizkuntza normalizatzeko ekintzak eta neurriak atal batzuetan beste batzuetan baino indartsuago gauzatuko dira.

Edozein modutan, Euskera Sekzioarekin batera Elhuyar Kultur elkarteak diseinatutako Planaren neurriak aztertuko dira, bertan Bilboko Udalari orokorrean dagozkion neurriak eta unitate bakoitzari dagozkionak azaltzen dira-ta.

8.3.- Inplementaziorako azpiegitura eta baliabideak

Gutxieneko egitura batek ematen duen bermea eta baliabide egonkorrak eskuratu behar dira plana inplementatu behar denerako, euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin. Hizkuntzaren ezagutzatik erabilerara eman behar den jauzia oso garrantzitsua da, are gehiago eremu jakin batean; urrats hori behar bezala emateko, berriz, langilearen jarretan eta lortutako hizkuntza-gaitasuna sendotzeko bideak ezarri behar dira, langile hori hizkuntza-egoera berrien aurrean egongo delako, besteak beste. Hizkuntza-jokabidean emango diren aldaketa hauek (hizkuntza bakarrean lan egitetik hizkuntza bitan lan egiten hastera) berebiziko garrantzia izango dute. Aipatutako baliabideen aurreikuspena honako hau da:

8.3.1.- Hizkuntza-prestakuntzarako azpiegitura

Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Planak langileen hizkuntza-prestakuntzarako lehenetsutako irizpideak ezartzen ditu, indarrean dagoen langileen lan-baldintzen hitzarmenarekin bat etorritik. Horrela, aurreikusitako hizkuntza-prestakuntza gauzatzeko behar diren baliabideak jartzen jarraituko da.

8.3.2.- Hizkuntzaren Normalizaziorako Teknikariak

Gaur egun Euskera Sekzioak euskera teknikari bi ditu eta euretako bat Sekzioburua da. Gaur eguneko lana eta plan honek onartzeak ekarriko duena kontuan hartuz, hizkuntzaren normalizaziorako teknikari bi gehiago beharrezkotzat jotzen dira.

8.3.3.- Aholkularitza eta laguntza teknikoa

Atal honetan planaren lehenengo hiru urteetarako hizkuntza-dinamizazio lanetarako laguntza tekniko berezitua aurreikusten da. Dinamizazio-teknika berrietan eta proposamenak egiterakoan aholkularitza aurreikusten da, batez ere tamaina eta konplexutasun handiko sailetan.

Dinamizazio lanen xedea, erabilera-planak lehen aldian abiaraztea da. Horrela, lan hauek 1999an hasiko dira eta hiru urteko lehen aldian zehar egingo dira.

8.3.4.- Beste giza baliabide batzuk

Planean hizkuntza ofizialen erabilerarako finkatutako jarraibideetatik eratorritako itzulpen beharrei (euskaratik zein gaztelaniatik), eta administrazio atal elebidunetako beharrei erantzuteko giza baliabide egokiak beharko dira.

8.4.- Ebaluazioa

Planaren aurrerapenak urtero berrikusiko dira Langileen Lanpostuen Zerrenda berrikusten den garai berean. Euskera Sekzioak alor bakoitzean eta unitate bakoitzean emandako aurrerapausuak azalduko ditu txoten batean.

Era berean, plan honen iraunaldia bukatutakoan gaur eguneko egoeraren eta bere orduan lortuko denaren arteko aldea zein den azalduko da beste4 txosten batean, horrela aurrerapausuak edota egin beharreko aldaketak ikusteko.

9.- APIRILAREN 15EKO 86/1997 DEKRETUA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak sozietate publikoetan eta zuzenbide pribatuko ente publikoetan hizkuntza-normalkuntzarako neurriak hartu beharra aurreikusten du:

"Laugarren Xedapen-Gehigarria. 1.- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.- Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezten hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote borren berri, Dekretu honen 7. atalean ezarritakoari jarraituz".

9.1.- Helburu mailakatuak eta normalizazio-ekintzak

1. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren nortasun-korporatiboan euskararen erabilera bermatzea.

Ekintza: euskara nortasun korporatiboaren zeinuetan erabiltzen ez denetan erabiltzea.

2.- Helburua: publiko orokorraren edo erabiltzaileari zuzendutako ezein dibulgazio jarduketetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

Ekintza: manualetan, gidetan, produktuen erabilerarako instrukzioetan, prestakuntza-ekintzetan eta dibulgazioko bestelako jarduketetan euskara erabiltzea.

3. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren bezero edo erabiltzailearekiko idatzizko harremanetan erabilitako agiri normalizatueta hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea.

Ekintza: kontratu agiritan, fakturretan, mekanizatutako eskutitzetan eta harremanetan

sortzen diren bestelako agirietan euskara erabiltzea.

4. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren bezero edo erabiltzailearekiko ahozko harremanetan bezeroak edo erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatzea.

Ekintza: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren arlo funtzionalen azterketa egitea, finkatutako helburuak eragindako arlo funtzionalak eta plantilako lanpostuak zeintzuk diren zehazteko; eragindako lanpostuak betetzeko euskara-maila egokia zein den zehaztea.

5.- Helburua: Sozietate edo Ente Publikoetako lan-harremanetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

Ekintza: lan-kontratu, nomina eta bestelako agirietan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea; langileei zuzenduta dauden eta lantokietan egon behar duten errotulu eta idatzizko testua duten informazio finkoek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute; langileei zuzendutako megafonia bidezko mezuak ere bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira.

6.- Helburua: langileek hizkuntza-gaitasun egokia hizkuntza ofizial bietan izatea.

Ekintza: hitzarmen kolektiboetan langileen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen eraentza aurreikusiko da egokiak diren pizgarriak ezarriz.

7.- Helburua: euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza ere izatea.

Ekintza: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren arlo funtzionalen azterketa egitea, helburu han betetzeko gai diren edo izan daitezkeen arlo funtzionalak eta plantilako lanpostuak zehazteko, eragindako jardunak zehazteko, helburua erdiesteko beharrianak identifikatzeko, e.a.

9.2.- Sozietate Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

Urtebeteko epean sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko ente publikoek bakoitzak bere Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana landuko dute, arestian zerrendatutako helburuen eta neurrien artean dagozkienak finkatuz.

Plan horiek egiteko, berriz, Bilboko Udaleko Euskera Sekzioaren aholkularitza izango dute.

9.3.- Erantzuleak

Sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako administrazio kontseilu eta pertsonal arloaren ardura duten organoak.

- Bilboko Udaleko dagokion saila.

OHARRAK

(1) Indarrean dagoen Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan (1996) euskararen ezagutzari buruz dauden datuetatik ateratzen den honako eragiketa hau eginda:

euskaldunen ehunekoa + (ia-euskaldunen ehunekoa/2)

(2) **MIKROPLANDUNAK:** Herritarrari zerbitzua emateko edo espedienteak bideratzeko orduan atal elebidunekin harreman zuzena duten atal orokorrak dira. Mikroplandunak izateak ez du esan nahi nahitanahiez neurri bereziak jarriko direnik bertan, izen horrek bereiztu gura ditu izaera orokorrekoen artean eraginkorrenak direnak. Administrazio Orokorrean ugariak dira izaera honetako atalak, bere tamaina eta egituragatik sortzen diren harreman motengatik.

(3) **KOMUNIKAZIO-ZIRKULUAK:** lan-gune berean antzeko zereginak edo lan berbera egiten duten langileez osatutako talde txikiak dira. Langileen partaidetza borondatezkoa da eta taldea aldian-aldian batzen da. Talde hauen helburu nagusia, berriz, lan-eginkizunetan euskararen erabilera sustatzeko arazoak identifikatu, aztertu eta irtenbideak bilatzea da.

Erakundearen euskararen erabilera areagotzeko talde eragileak dira beraz, planaren garapenean guztien partaidetza bermatzeko erabiliko direnak.

(4) 25. atala: Jaurlaritzak 22. atalean aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeagotzeko, euskal argitalpenak sustatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, nolana ere honako hauetan euskararen zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emanez:

Irratian

Egunkari eta aldizkarietan

Zineman

Antzerki eta ikuskizunetan

Irudiaren eta hotsaren irarpideetan

Horretarako, aurreko atal horietaz ihardun eta horiek araupetu ditzaten legetan horretazko idazpuru bat sartuko da.

26. atala: Euskal Herri-agintariek euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dedila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituzte, herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolana hiko ekintzapidetan euskaraz ari daitezeneko bideak eskaintzeko.

27. atala: 1.- Euskal herri-agintariek euskara zabalkunde-jardunetan erabiltzea sustatuko dute.

2. - Halaber, euskara-giroari indar emango diote, eta bai merkataritzako, atsedenezko, kulturazko eta bazkunezko ofizialez besteko nolana hiko erakundeetako iragarkietan erabiltzeari ere.